

IRAKASLEAK. DIAGNOSTIKOA**10.2. TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA.**

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu noraino zauden ados, 1etik (ez bazaude batere ados) 4ra (erabat ados bazaude).

HIZKUNTZAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ SEXISTA				
19. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabiltzen eredugarri jotzen dut: neskak eta emakumeak izendatzen ditut, femeninoa eta maskulinoa erabiltzen dut, berdintasunezko adjektibazioa egiten dut, adierazpen diskriminatzaile edo sexistak erabiltzea saihestuz, eta abar.	1	2	3	4
20. Ahozko hizkuntzako sexismoa aztertzen dut ikasleekin, desberdintasunen jakitun izan daitezzen, hizkuntzako sexismoaren aurrean alternatibak bilatuz.	1	2	3	4
21. Ikasleekin hitz egiten dudanean, saiatzen naiz hizkera sexista ez erabiltzen, eta alternatibak bilatzen ditut horretarako (bikoizketa maskulino-femeninoa, emakumeak eta gizonak barne hartzen dituzten generikoak, adierazpen barneratzaileak, adjektibazioan bereiztea saihesten dut ...)	1	2	3	4
22. Hizkuntzaren erabilera sexista duten testuak aztertzen ditut, eta ikasleengandik hurbil dauden testu batzuetan erabilitako ezaugarri sexistak atzematen ditut.	1	2	3	4
23. Aztertutako testuetan hizkuntzaren erabilera sexistaren alternatibak aztertzen ditut (benetako generikoak erabiltzea, adierazpen barneratzaileak ...).	1	2	3	4
24. Honako hauek aztertzen ditut (batez ere Bigarren Hezkuntzako ikasleekin): hizkuntzaren bilakaera, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko aldeak, gaztelaniaren eta euskararen idatzizko normalizazioa, RAEren jarrera hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren aurka eta erabilera ez-sexistaren aldeko beste aditu batzuen jarrera.	1	2	3	4
25. Ikasgelan erabiltzen diren material didaktikoen (ipuinak, narrazioak, posterrak ...) eta testuliburuen irudiak aztertzen ditut ikasleekin, bai eta haiek sexua dela-eta izan dezaketen izaera diskriminatzailea ere.	1	2	3	4
26. Ikasgelan erabiltzen diren irudien (eta bideoen) sexismoa detektatzeko analisi-tresnak eskaintzen dizkiet ikasleei.	1	2	3	4
27. Bigarren Hezkuntzako ikasleekin aztertzen ditut protagonistak eta haien lanbideak eta eginkizunak, alderdi fisikoa, estereotipo eta rol sexistak antzemateko irizpideekin.	1	2	3	4
28. Ikasleei beren burua ebaluatzen laguntzen diet hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, beren jarreretan eta eguneroko jardueretan, berdintasunezko identitatearen eraikuntzan aurrera egiteko.	1	2	3	4
29. Lan-dokumentuetan (programazioak, memoriak, ebaluazioak ...) hizkuntza ez-sexista erabiltzen dut.	1	2	3	4
30. Orientabide argiak daude hezkuntza-komunitateko kideen artean hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko.	1	2	3	4

Talde txikian item bakoitzari emandako erantzunak adosten saiatuko gara, eta argudiatzen eta akordioak lortzen ahaleginduko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertu, eta taula honetan sailkatu:

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA		
	Zenbakiak	Zergatiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten indizeak).		

Gure ikastetxean hautemandako indarguneak eta ahuleziak ikusita, epe laburrean zer hobekuntza-elementu egin daitezkeen zehaztuko dugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, hobetzeko behar horiek formulatuko ditugu, datozen ikasturteetan aurrera eraman ahal izango ditugun helburu gisa.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	
HOBETZEKO BEHARRAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK